

SECCION AMENA

ERDI-SOROA

Buru-andi, zan gizon bat, erdi-zorotzat guziak zeukatena, baña nai zuen guzia egiten zuena.

Etorri zan errira erretore jaun berria, jakintsu otsekua, eta badijoa Buru-andi konfesatzera erretore jaunagana, onen jakinduria neurtzeko ustian.

—Jauna—diyo Buru-andik,—ni naiz erdi-zorooa.

—Ori ez da pekatu,—eranzun zion Erretoreak.

—Badakit jauna, baña ez bakarrik pekatuak esan bear ditut, baizik baita ere pekatuen sustrayak.

—Ongi da; esan itzatzu bada.

—Nere pekatuak dira, aza-buru batzuek ostutzea iñoren baratzatik, artua eta baburruna besteren sorotik, lukainka eta urdaia iñongo echetik, eta.... itz batian, bizitzeko bear dan guzia inguratu, aldan lekutik, eta beti iñorenetik, eta pekatu oen sustraia da erdi-zorotasuna.

—Eta erdi-zorooa izanik, ¿etзера beñere deskuidatu zure baratzatik, sorotik, edo echetik besterenera ezer eramaten?

—Ez, ez jauna; Jaungoikoari eskerrak; ori izango litzake, ez erdi-zoro, baizik zoro-oso biyurtzia; eta errian zororik asko, eta zoro-osoak, ni gabe ere badaude, eta ez guchi.

—¿Ainbeste zoro dirala, diozu errian?

—Bai jauna, bai, sinistu beza.

—¿Zéñ dira bada oyek?

—Ni erdi-zorotzat naukatelarik, nai dedana egiten uzten diraten guziak.

- ¿Egiñ dezu beñere ezer echearen kaltean?
- Ez jauna, orretan kontu andikoa beti izandu naiz, auzoai me-sede andirik egiñ izan ezpadiet ere.
- Erdi-zorua zeralarik, orrenbeste juizio badezu, ¿zér izango ziñan zintzoa izan baziña?
- Ori-ori esan beza; baña begira: dakien bezela, erdi-zorotasuna da nere pekatuen sustraya. ¿Ez du bedorrek onen kontrako erremediorik?
- Bai badet, eta emango dizut penitenziatzat.
- Jaungoikoak pagatuko dio egingo didan mesedea.
- ¿Itz ematen didazu, kunplituko dezula penitentzia?
- Bai jauna, ematen diot.
- Ara bada: emendik aurrera, ostutzen badezu aza-buru bat, aren jabeari biurtuko dizkiotzu bi azaburu; eta era berean, edozeiñ gauza ostutzen dezunean, ura bera edo aren balioa, beste ainbesterekin jabeari biurtuko diozu.
- Eta noiz arteko da, jauna, penitenzi ori?
- Zintzotu arte.
- Eta ¿zintzotuta ere eroriko banintz pekatu oyetan?
- Orduan, ostutzen dezun gauzaren balioa bezelako iru jabeari biurtuko diozu.
- ¿Eta zintzotu bearrean, oso zoratuko banintz, eta pekatu oyetan erori, ¿zér egingo det?
- Ostutzen dezun gauza, lau aldiz geiagorekin pagatu.
- Jauna, aterik ainbat maratilla arkitzen det nik emen, eta uste det alperrik nekatzen naizala. Ondoan egingo nukela uste det, lan egiñ gogotik eta bizi.
- Orişe ber-bera nijoakizun esatera. Lan egizu bada gogotik eta zintzotua zaude.
- Amen.
- Kontuak-kontu, Buru-andi, izan zan andik aurrera gizon zintzo eta langillea, eta beretzat etzan gizon jakintsuagorik, erretore jauna baño; eta churrut bat edan ezkeru, kantatu oi zuen:

Erdi-zoroak egiñ	}	Zaragozara gabe
Dezatela lana	}	Emen dago dana
Izerdiaz dezaten	}	Zoroen sendatzalle
Irabazi jauna	}	Erretore jauna.

UR-ZALE BATEK.